

HERRITARREN HIZKUNTZA AKTIBAZIORAKO DINAMIZATZAILE BILA ARI DA LAU HAIZETARA (Erref.: DINAMIZATZAILEA)

Eginkizun orokorrak

- Errenteria/Oreretan herritarren hizkuntza aktibazio proiektu baterako dinamizatzea
- Oarsoaldeko herritarren hizkuntza aktibaziorako gainerako proiektuekin koordinatzea

Zeregin zehatzak

- Herritar eta eragileekin aktibazio dinamika partekatzea eta prestakuntza eskaintzea
- Herriko talde eragileak dinamizatzea. Lan eremua Errenterian izango da (tarteka eskualdean ere bai)
- Komunikazio lanak egitea (sare sozialak, tokiko hedabideak...)
- Euskararen komunitatearen aktibazio ekimenak sustatzea, eta ekintzak kudeatzea eta antolatzea
- Herriko eta eskualdeko foroetan parte hartzea

Zer eskaintzen dugun

- Herritarren hizkuntza aktibaziorako proiektuaren dinamizatzaile lanpostua
- Bi urte eta erdiko kontratua (2026ko urtarritetik 2028ko ekainera), astean 30 orduko lanaldiarekin
- Euskalgintzan eta herrigintzan trebatzeko aukera

Zer eskatzen dugun

- Euskara maila ona izatea, ahoz eta idatziz (C1 edo baliokidea, proba bidez egiaztatzeko aukerarekin)
- Herriko euskalgintza eta herrigintza esparruetako ekimenak ezagutzea
- Hizkuntza motibaziotik jardutea, proiektu honekiko bi urte eta erdiko konpromisoa hartuta
- Komunikazio pertsonalerako trebetasuna: jendaurrean hitz egitea, proiektuak defendatzea...
- Taldean lan egiteko eta lantaldeak dinamizatzeko gaitasuna izatea
- Kudeaketarako gaitasuna izatea
- Lanerako autonomia izatea, eta ordutegi malgutasuna izatea
- IKTen eta sare sozialen erabileran gutxienezko gaitasuna izatea

Zer baloratzen dugun

- Euskalgintzan edota herrigintzan esperientzia izatea
- Gida baimena eta autoa izatea
- Komunikazio alorreko ezagutzak izatea (bideoen sorrera, irudi diseinua...)
- Taldean aritzeko trebea, ekintzailea, ordenatua, erabakitzailea eta proaktiboa izatea

Interesatuta bazaude, bidali curriculuma bulegoa@lauhaizetara.eus helbidera 2025eko azaroaren 23aren aurretik, betiere DINAMIZATZAILEA erreferentzia adierazita. Prozesuan parte hartu duten guztiei hautatuak izan diren ala ez abenduaren 16rako jakinaraziko zaie